ENERGI ITURRIAK

Energi Iturriak, gizakiok energia lortzeko erabiltzen ditugun natura baliabideak dira.

Bi motatakoak izan daitezke:

Energia iturri berriztaezinak:

- Naturatik ateratzen ditugu.
- oso azkar kontsumitzen dira.(Agortu daitezke)
- oso poliki berritzen dira.
- kutsatzen dute
- Adibideak: petroleoa, ikatza eta gas naturala.

Energi iturri berriztagarriak:

- Naturatik lortzen ditugu.
- Ez dira agortzen.
- Zentral elektrikoetan erabiltzen dira energia lortzeko.
- Ez dute kutsatzen.
- Adibideak: Eguzkia(Eguzki energia), haizea (Energia eolikoa) eta ura (Energia hidraulikoa).

Ariketak:

1. Idatzi X, laukitxoan esaldia zuzena bada.

a) Energi iturri berriztagarriek asko kutsatzen dute.
b) Eguzkia eta haizea energia berriztaezinak dira
c) Energia berriztaezinak, azkar kontsumitzen dira eta agortu daitezke.
d) Energi iturri berriztaezinak ez ditugu naturatik ateratzen.
e) Eguzkiak, haizeak eta urak ez dute kutsatzen.
f) Petrolioa , ikatza eta gasa energia berriztaezinak dira.

2. Markatu X batez

Zein energia motak kutsatzen du gehiago ?.

Energia mota berriztagarriak Energia mota berriztaezinak

3. Markatu X batez hauen artean energia berriztagarriak direnak:

Petrolioa Ura Airea gas naturala